

ABONATUEK UGARRANDIA KIROL-INSTALAZIOETARA IREKI AURREKO KUDEAKETAK

Une honetan, garrantzitsua da kirol-instalazioetako abonatuak argibide hauek jarraitzea, irekitzeko unean Kirol-instalazioetarako sarbidea eta instalazioko zerbitzuen erabilera zailtasunik gabe egin ahal izateko:

- 1- Instalazioetara sartzeko karneta lokalizatuta eta egoera onean edukitzea. Karnetik gabe ezingo da sartu. Txartelik ez duten pertsonak, mesedez, igerilekuak irekitzeko eguna baino lehen eskatu.
- 2- Lau urtetik beherako haurrak:
 - Ekainaren 14tik aurrera, 2 eta 3 urteko haurrek ere txartela eraman beharko dute. Hori dela eta, txartelik ez dutenek Udaleko Kirol Zerbitzuaren bulegoetan eskatu beharko dute.
 - Gogoan izan 4 urtetik beherakoek (txartela izan edo ez izan) kirol-instalazioetara abonatuta egon beharko dutela; bestela, ezingo dira sartu.
- 3- Aita eta ama bazkide-zenbakia (abonatuaren zenbakia gidoiaren aurrean dauden zifrak dira) desberdina duten familiek, familia-unitateko kide guztiak bazkide-zenbaki berdinean bateratzea gomendatzen dugu. Izapidetze hori egiteak, kuota guztian kontu-zenbaki bakar batera igortzea dakar.
- 4- Alta ematea www.huarte.es webgunean dagoen "Izen emate eta erreserbak" aplikazio informatikoan. Aplikazio honen bidez, instalazioen erabilerari lotutako kudeaketak egiten dira (aurretiko hitzordua, erreserbak, izen-emateak, etab.).

NOLA JARRI HARREMANETAN UDAL KIROL ZERBITZUAREKIN:

Udalaren Kirol Zerbitzuak helbide elektroniko eta telefono hauek ditu:

- Kontsulta eta izapide guztietarako posta orokorra: deportes@huarte.es
- Errenta-aitorpena aurkezteko posta elektronikoa: declaracion-aitorpena@huarte.es
- Udaleko Kirol Zerbitzuaren telefonoa: 948 33 19 01

Udal Kirol Zerbitzuaren bulegoak Ugarrandia kirol instalazioetan daude. Jendearentzako bulego-ordutegia 8:00etatik 14:30era da.